## ZUMAIAKO UDALA

*Gaia: Droga-mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamenduetara joaten diren pertsonentzat banakako diru-laguntza ekonomikoak arautzeko oinarri berezien behin betiko onarpena.*

Udalaren osoko bilkurak, 2013ko otsailaren 28an, droga-mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamenduetara joaten diren pertsonentzat banakako diru-laguntzak emateko oinarri zehatzei hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Oinarri horiek 30 eguneko epean jendaurrean jarri ziren, 2013ko martxoaren 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako 46 zenbakidun iragarkiaren bidez, eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatutako arau-oinarriak behin betiko onartutzat ematen dira.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da arau-oinarrien testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Zumaia, 2013ko apirilaren 17a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(954) (3833)

*Droga-mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamenduetara joaten diren pertsonentzat banakako diru-laguntza ekonomikoak arautzeko oinarri bereziak.*

*1. Arrazoia.*

Zumaiako Udalak, aurrekontuetan «Gizarte Babesa eta Tratamendua» partida du, drogen mendekotasunen edo beste zaletasun edo mendekotasun batzuen tratamenduetara joaten diren pertsonei, garraiorako laguntza ekonomikoak eskaintzeko.

*2. Xedea.*

Horrelako egoera batean dauden Zumaiako bizilagunei, EAEko tratamendu zentroetarako edo zerbitzuetarako sarbidea erraztea.

*3. Onuradunak.*

Droga-mendekotasun arazoengatik, mendekotasun psikologikoengatik edota arriskuko jokaerengatik, tratamendu programa batean dabiltzan Zumaian erroldatutako pertsonak.

Era berean, laguntzen onuradun izango da eragindakoaren jarraipena egingo duen pertsona (senidea edo laguna).

Dena den, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ahalmena du aztertu, baloratu eta proposatzeko aurkeztu daitezkeen kasu berezi guztiak.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Asunto: Aprobación definitiva de las bases específicas que regulan las ayudas económicas individuales de transporte para personas que acuden a tratamientos de drogodependencias y otras dependencias psicológicas.*

El Pleno municipal en sesión de fecha 28 de febrero de 2013, aprobó inicialmente las bases específicas para la concesión de ayudas económicas individuales de transporte para personas que acuden a tratamientos de drogodependencias y otras dependencias psicológicas.

Dichas bases quedaron sometidas a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 46 de fecha 7 de marzo de 2013, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, las citadas bases quedan definitivamente aprobadas.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de las bases mencionadas.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Zumaia, a 17 de abril de 2013.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta.

(954) (3833)

*Bases específicas que regulan las ayudas económicas individuales de transporte para personas que acuden a tratamientos de drogodependencias y otras dependencias psicológicas.*

*1. Motivo.*

El Ayuntamiento de Zumaia cuenta con una partida presupuestaria, «Apoyo y Tratamiento Social», cuyo destino es ayudar económicamente en el ámbito del transporte a personas que acuden a tratamientos de drogodependencias u otro tipo de adicciones o dependencia.

*2. Objeto.*

Facilitar el acceso a la población de Zumaia que se encuentre en alguna de esta situación, a los centros de atención o servicios existentes de la CAPV.

*3. Personas beneficiarias.*

Personas empadronadas en Zumaia que se encuentren realizando un programa de tratamiento por problemas de drogodependencias, adicciones psicológicas de otro tipo o conductas de riesgo.

Se beneficiará de las ayudas del mismo modo el acompañante (familiar o amigo/a) que realice el seguimiento del afectado.

No obstante, la comisión informativa de Servicios Sociales queda facultada para estudiar, valorar y proponer todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

*4. Laguntza motak.*

Laguntzak, aipatutako zentroetara edo zerbitzuetara joateak eragindako garraio gastuak estaltzera bideratuko dira. Garraio gastuak kontsideratzen dira, garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan Zumaiatik tratamendu zentroraino edo zerbitzuraino egindakoak. Laguntzak emate aldera, kontuan hartuko da tratamenduaren onuraduna eta bere laguntzailea, horrela behar den kasuetan, hileko eginiko bidaia kopurua, garraio publikoaren kostuari dagokionez.

*5. Baldintzak.*

Eskatzaileak Zumaian egon behar du erroldaturik, diru-laguntza eskabidea aurkezten duen unean bertan.

Diru-laguntzak, tratamendu programan hilabete egon ostean eskatu ahal izango dira. Kontzesioak atzeraeraginezko izaera izango du, tratamenduaren hasieratik.

*6. Onuradunen betebeharrak.*

Tratamenduan dagoen pertsonaren egoeran izan daitezkeen aldaketak, araudi honetako laguntzekin lotura izan dezaketenak (adibidez, tratamendua bukatzea edo bertan behera uztea), adierazi behar dute eta behar bezala egiaztatu Udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamentuan, gehienez ere 30 eguneko epean, hori gertatu denetik.

*7. Aurkeztu beharko agiriak.*

Araudi honetan arautzen diren diru-laguntzak jaso nahi dituzten pertsonek, batetik, eskaera bete eta aurkeztu behar dute Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailean, hartarako emango zaien inprimakian, eta, bestetik, horrekin batera dokumentazio hau erantsi behar dute:

a) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.

b) Errolda eta bizikidetza agiria.

c) Tratamendu Zentroak egindako ziurtagiria adieraziz tratamenduan gutxienik hilabete bat aritu izana.

e) Zinpeko adierazpena, non eta agertuko den, hala badagokio, beste erakunde batzuetan emandako (edo eskatutako) beste diru-laguntza batzuk daudela (edo diru-laguntza eskabideak).

f) Gizarte Zerbitzuetako batzordeak beharrezkotzat jo dezakeen beste edozein agiri.

*8. Aurkezteko epea.*

Ez da finkatu eskabideak aurkezteko eperik, baina laguntza jasotzeko eskubidea eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera sortuko da.

*9. Izapidetzeaz arduratzen den departamentua.*

Gizarte Zerbitzuen sailean bideratuko dira eskaerak.

*10. Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Laguntza onartzeko orduan ez dira kontuan izango eskatzailearen eta bizikidetza unitateko kideen diru-sarrerak.

Laguntzaren kopurua urtero eguneratuko da, urte bakoitzeko garraio publikoaren prezioen arabera.

*4. Tipos de ayuda.*

Las ayudas se destinarán a cubrir los gastos de transporte derivados de la asistencia a alguno de los centros o servicios para tratamiento. Se consideran gastos de transporte, tanto los realizados en transporte público como en vehículo propio desde el municipio de Zumaia hasta el centro o servicio de tratamiento. Si bien, a efectos de concesión de las ayudas se tendrán en cuenta el número de viajes mensuales realizados por la persona beneficiaria del tratamiento así como del acompañante, en los casos que así se requiera, en función del coste del transporte público.

*5. Requisitos.*

La persona solicitante deberá estar empadronada en Zumaia en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica.

Se podrán solicitar ayudas económicas a partir del primer mes de permanencia en el programa de tratamiento. La concesión tendrá carácter retroactivo desde la fecha del inicio del tratamiento.

*6. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las modificaciones que puedan producirse en la situación de las personas en tratamiento y en las personas familiares, que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (por ejemplo, terminar el tratamiento o dejarlo), deberán ser comunicadas y debidamente acreditadas en el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo máximo de 30 días desde que se hayan producido.

*7. Documentación a presentar.*

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se le facilitará a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.

b) Certificado de Empadronamiento y convivencia.

c) Justificante expedido por el centro de tratamiento, donde se notifique haber estado como mínimo un mes en tratamiento.

e) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras subvenciones (o solicitudes de subvención) concedidas (o formuladas) por (o ante) otras instituciones.

f) Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Servicios Sociales pueda considerar necesaria.

*8. Plazo de presentación.*

No se establece plazo de presentación de solicitudes, si bien el derecho a la percepción de la ayuda se generará a partir del día de la presentación.

*9. Departamento encargado de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas en el departamento de Servicios Sociales.

*10. Criterios de valoración de solicitudes.*

A la hora de conceder la ayuda, no se tendrán en cuenta los ingresos del solicitante ni de los miembros de la unidad convivencial.

El importe de la ayuda diaria será actualizado anualmente, según los precios del transporte público vigente cada año.

*11. Aurrekontua.*

Dagokion urteko 480.313.90.02 aurrekontu partidatik «Gizarte Babesa eta Tratamendua» kontu sailaren kargura izango da.

*12. Laguntzak pilatzea.*

Araudi honetan datozen laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo diru-laguntza lortzearekin, helburu horretarako beste edozein administrazio publikotik lortzen badira ere, baina inola ere ezingo da gainditu bidaien gastu guztien kostua.

Kostu osoa gainditzen dela ulertuko da, jasotako laguntzek, oro har, garraio publikoaren zenbatekoari dagokiona gainditzen dutenean.

Emandako diru-laguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, itzuli egin beharko zaio Udalari gehiegi ordaindutako kopurua.

*13. Frogatzeko epea eta erak.*

Laguntza ordaindu baino lehen, hilero tratamendu zentroak egindako asistentzia egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Bertan zehaztu beharko da tratamendura joandako egunez gain, bakarrik ala laguntzailearekin egon den.

*14. Ordaintzeko erak eta epea.*

Diru-laguntza emateko akordioa adierazten duen aldian laguntza onartu eta gero, oinarri berezi hauetako 13. artikuluan aurreikusten diren frogagiriak aurkeztu ondoren, ordainduko da, hilero (hilabete mugaeguneratua).

Diru-kopuruaren ordainketa eskatzailearen kontuan eta hala badagokio, tratamendura laguntzen duen senide edota lagunaren kontuan sartuko da.

*15. Klausula gehigarria.*

Arau espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, arau orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, Diru-laguntzei buruzko Zumaiako Udaleko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoak aginduko du.

Zumaia, 2013ko apirilaren 17a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(954) (3833)

*11. Presupuesto.*

Será financiado con cargo a la partida presupuestaria 480.313.90.02 del año correspondiente-»Apoyo y Tratamiento Social».

*12. Concurrencia de ayudas.*

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de desplazamiento.

A este respecto se entenderá que se supera el coste total cuando las ayudas recibidas, en su conjunto, excedan de la cantidad correspondiente al transporte público.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

*13. Plazo y forma de justificación.*

Previo el abono de la ayuda, las personas beneficiarias deberán presentar los justificantes de asistencia expedidos por el centro de tratamiento. En el cual, habrá que constar además de los días que ha asistido al tratamiento, si lo ha hecho con o sin acompañante.

*14. Forma y plazo de pago.*

Aprobada la ayuda por el período que señale el acuerdo de concesión, el abono de la misma se efectuará, previa presentación de la documentación justificativa prevista en el artículo 13 de las presente bases específicas, con carácter mensual (mes vencido).

El pago de la cantidad se ingresará en la cuenta de la persona solicitante y, en su caso, en la cuenta del familiar o amigo/a que le acompañe al tratamiento.

*15. Cláusula adicional.*

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

Zumaia, a 17 de abril de 2013.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta.

(954) (3833)